ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2019ko martxoaren 20a, asteazkena • 34 zk.

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

# AMURRIOKO ESKUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEA (ARABA)

**Gorte Nagusietarako 2019ko hauteskundeetako kanpaina ekitaldiak dohainik egiteko erreserbatzen diren lokal ofizialen eta toki publikoen zerrenda**

Nik, Diego Cosano Hervás, Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeko idazkariak, Hauteskundeen Araubide Orokorraren Lege Organikoak (LOREG) 57.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aditzera ematen dut, Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzorde honetako udalek jakinarazitakoaren arabera, hauek direla hauteskunde kanpainako ekitaldietarako dohainik erabili ahal izateko erreserbatu diren toki publikoak eta lokal ofizialak:

AMURRIOKO UDALA

1. Udal pilotalekua.

2. Kultura etxea.

3. Zabaleko LHIko liburutegia.

Esandako lokalak hauteskunde kanpainaren egun guztietan erabili ahal izango dira, 18:00etatik aurrera eta 21:30era arte, eta, libre egonez gero, beste edozein ordutan ere bai.

4. Udalaren edozein plaza edo leku publiko, Juan Urrutia plaza izan ezik, Udalak aldez aurretik baimena ematen badu.

ARTZINIEGAKO UDALA

1. Udal pilotalekua. Garai plaza, 1. Edukiera: 400 pertsona.

2. Barcena kiroldegia. Edukiera: 600 pertsona.

Lokal horiek edozein egunetan eta edozein ordutan erabil daitezke.

AIARAKO UDALA

1. Erabilera askotarako aretoa, Luiaondon. Ez dakigu zer egun eta ordutan dagoen hutsik, jarri harremanetan Maite Alonso Luiaondoko Administrazio Batzarreko errejidore-lehendakariarekin; telefonoa: 606689788).

2. Erabilera askotarako aretoa, Arespalditzan. Egunak eta orduak erreserbatzeko, deitu Aiarako udal bulegoetara. Tel: 945399013.

LAUDIOKO UDALA

1. Lamuza pilotalekua. Edozein egun eta ordutan.

2. Aretako kultura etxea. Edozein egunetan. Astelehenetik larunbatera, ordutegia: 11:00etatik 22:00etara; igandetan: 11:00etatik 14:00etara.

3. Milagrosa ikastetxea. Ekitaldi aretoa. Letziaga bidea, 2. Edozein egunetan erabili ahal izango da, igandeetan izan ezik, 18:30etik aurrera.

4. Gardeako auzo etxea. Soziala. Edozein egunetan, 15:00etatik 22:00etara.

5. Laudioalde Lanbide Eskola BHI. Ekitaldi aretoa. Carmengo Andra Maria, 17. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara.

6. Kultura etxea: (1 aretoa). Lamuza, 13. Egunero, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 21:00etara, eta larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

7. Lamuza plaza. Edozein egunetan.

8. Herriko plaza. Edozein egunetan.

9. Aldai plaza. Edozein egunetan.

10. Latiorro. Altzarrate plaza. Edozein egunetan.

11. Ugarte. Ugarte plaza. Edozein egunetan.

12. Areta. Patricia Bilbao urbanizazioko arkupea. Edozein egunetan.

OKONDOKO UDALA

1. Udal pilotalekua.

2. San Bartolome plaza.

Bi horiek hauteskunde kanpainako edozein egunetan erabili ahal izango dira 08:00etatik 24:00etara.

URKABUSTAIZKO UDALA

1. Udal pilotalekua.

2. Udal plaza.

Edozein egun eta ordutan erabili ahal izango dira toki bi horiek, baina udalari eman beharko zaio abisua aurretik.

GAUBEAKO UDALA

1. Bovedako kontzeju aretoa.

2. Uribarri Gaubeako gaztetxea.

3. Espejoko kontzeju aretoa.

Aipatutako lokal horiek aldez aurretik abisua emanda erabili ahal izango dira.

Eta horrela jasota gera dadin, eta ALHAOn argitara dezaten, honako hau egin eta izenpetzen dut.

Amurrio, 2019ko martxoaren 13a

*Idazkaria*
*DIEGO COSANO HERVÁS*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.03.20 06:35:26 Z